

LODOSA

Alde onak eta txarrak aztertzeako ordua da

Egun bereziak ditugu aurretik, 2010. urte hau amaitzen ari da eta itxaropenez begiratzen diogu 2011. honek ekarriko digunari. Hori dela-eta, LOIUK uste du komenigarria dela zure etxeraino eramatea “informazioa emateko albistegi” hau. Irakurtzera eta gogoeta egitera animatu nahi zai-

tugu, gure herriaren egoera zein den eta egoera horri Udalak nola erantzuten dion aztertzeako. Jaiegun hauetan gogoeta hori lasaitasunez eta bizilagunekin, senitartekoekin, lagunekin eta abarrekin partekatuta egin dezakegu.

Hartu genuen konpromiso nagusietako bat betetzeko asmoz argitaratzen du LOIUK albistegi hau: **INFORMAZIOA EMATEA**. Izan ere, **informazioa eta gardentasuna** funtsezkoak baitira, eta, hortaz, lodosar guztiok dugu horietarako esku-bidea.

Aurreko bi albistegietan egin duen moduan, azken urte honetan landu dituen gai berberak planteatzen ditu ale honetan LOIUK. **Datu objektiboak** eskaintzen ditu eta, nola ez, horiei buruz ditugun balorazioak jakinarazten ditugu.

Balorazio eta iritzi horiek argitaratu egiten ditugu eta denoi

helarazten dizkizuegu, inolako bereizketarik egin gabe, eta ez dira aldatzen, hartzailearen arabera.

Informazioarekiko **konpromiso** horri udalaren zati izaten hasi ginen egun berberetik eutsi diogu, eta gure betebeharra delako egiten dugu, ez soilik “**garai politikoak**” hala egiteko eskatzen duenean.

Hori esan dugu, denok dakigun moduan, 2011. honek **udal hau-teskundeak** ekarriko dituelako eta, ziur asko, orduan alderdi politiko guztiak arduratuko direlako beren iritziak herritarroei jakinarazteaz.

LOIU osatzen dugun kideok

uste dugu 2011. honek “**beharrezkoa den aldaketa**” ekarriko duela **Lodosara**, eta aldaketa hori ezin izango dela egin LOIUK parte hartu gabe. **LOIUK aldaketa** horren alde **lan egiten** jarraituko du, **Lodosak** behar duela uste baitugu.

Beharrezkoa da kudeatzeko modua aldatzeko, baina baita “**aire freskoari**” bidea emateko eta gure Udala zuzentzen duten pertsonen “**ideia ahituak**” ordezkatzeko ere. “**Beharrezkoa den aldaketa**” hori etorriko da, eta “**premia demokratikoagatik**” etorriko da.

Mila esker eta agur bero bat.



“Lodosako saltokien eta industriaren etorkizunaren aldeko ahalegina egin behar dugu”

Pablo Azcona LOIUko zinegotzia da Lodosako Udalean, eta Industria, Merkataritza eta Turismo zinegotzigoaren buruan eta oposizioan azken urte honetan egin duen lanean izan dituen mugariak eta ahaleginak azaltzen dizkigu.

“Legegintzaldia hasi zenean, LOIUk onartu zuen Industria, Merkataritza eta Turismo Batzordearen buru izatea, alkateak egin zion eskaintza aintzat hartuta”, adierazi du Azconak, arlo horretako zinegotzi lanetan izan dituen nahigabeak berraztertzen hasi aurretik.

Ahalik eta ilusio handienarekin egiten dugu lan hau, uste baitugu, behin ordezkari-tza lortuta Udalean, behartuta gaude-la gure herriaren aldeko lanean inplikatzera eta horren konpromisoa hartzera. Eta gutxiengoa izanagatik ere, ezin ditugu legegintzaldiko lau urte hauek igarotzen utzi bestee-

Egun gure inguruan ikus dezakegu-naren arabera, ordea, San Adrianek eta Vianak onena izan dute indus-triaren arloko garapenean. Inguru honetarako zeuden eskualdeko industrialdeak egiteko bi proiektuetatik (Lodosan eta Los Arcosen) bakarra egin da, Los Arcoskoa.

handitzea egiteko zain daude.

■ **Sartagudan, 2006an 40.000 metro koadro prestatu zituzten**, nahiz eta erdiak baino ez dituzten urbanizatu.

Eta Lodosan, zer? Krisi honetan bete-betean sartuta gelditu gara, baina etxeko lanak egin gabe.

CABIZGORDO INDUSTRIALDEA

Proiektuak Gobernuaren eta udal-batza osoaren oniritzia badu ere, “logikaren kontra”, gauzatu gabe dago oraindik.

Ez gara berriro hasiko azaltzen zer-tan datzan **Lodosari 844.000 metro koadroko industrialdea** ekarriko dion proiektu hori.

Besterik gabe, gogorarazi behar dugu bi legegintzaldi joan direla UPN-CDNren ordezkari-tza bat, orduan elkarrekin baitzeuden agin-tean, Lodosara etorri zenetik in-dustrialde horren nondik norakoak azaltzeko. **Metro koadroa 30 edo 35 euroko prezio lehiakorrean jartzeaz** hitz egin zuten orduan. 2003ko udal hauteskundeak gertu zeuden.

2007ko maiatzaren 4an, Lodosako Udalak eta NASUINSA enpresa publikoak lankidetza hitzarmena sinatu zuten, industrialdea sustat-zeko. 25 egun falta ziren hurrengo udal hauteskundeetarako.

2011. urtearen atarian gaude, eta berriro ere presaka dabil-tza indus-trialdearen inguruan “zer edo zer” mugiarazteagatik.

LOIUk, bere aldetik, ahal izan di-



Cabizgordo industrialdea egiteko lanek egun duten itxura

Argazkia: LOIU

zer egiten duten ikusten.

Oso zaila da batzorde baten buru izatea gutxiengoa hain izugarria denean, eta, batik bat, industriaren arlo honetan. Izan ere, proiekturik garrantzitsuena udalaz gaindikoa da, eta, **neurri handi batean, UPNrena ere baden gobernu baten mende dago**. Azken batean, ez gara alderdi politiko bereberekoak eta, horrenbestez, **uste dute eduki ezin dugun informazioa dagoela**. LOIUren iritziz, nabarmena da in-dustriaren arlo honetan **UPNren gobernuko 12 urteak txarrak izan direla Lodosako herrirako**.

Lodosa zen inguru honetako erreferente sozio-ekonomikoa. Herritar kopuru handiena izateaz gain, aldi berean, gorantz zihoan garapen industrialaren zuen (neka-zaritzako elikagaien sektorea) eta etorkizuneko itxaropenak sortzen zituzten ezaugarri batzuk.

Inguruko herrietan ez dute denbo-ra alferrik galdu:

■ **Mendabian, 55.000 metro koadro** dituzte industrialde berrian okupatuta, **47.000 metro koadroko handitzea egin zuten 2002an, eta 100.000 metro koadrokoa, 2009an**.

■ **Sesman** (bertan lan egiten dute lodosar askok) **166.000 metro koadroko industrialde berria dute, eta horietatik erdiak baino gehiago okupatuta daude**.

■ **Lerinen, 2003tik gaur arte, 185.000 metro koadroko indus-trialdea sortu dute**, eta enpresa berriak erakarri dituzte.

■ **Carcarren, 2005ean, “El mallaton” industrialdea inauguratu zuten. 120.000 metro koadro ditu**, eta inauguratu eta berehala okupatu ziren. Orain, hirugarren

tuen ate guztiak jo ditu eta ez ditu batere argi ikusten gauzak. Garbi esan dezakegu hainbeste alditan saldu diguten **industrialde erraldoia ezin daitekeela egin**, nagusiki, ez dagoelako dirurik lan guztiak finantzatzeko, baina baita ez dagoelako itxaropenik lurzoru industrial hori saltzeko. Kontuan izan behar dugu eskaintza oso handia dela gure inguruan, jada eginda dauden industrialdeetan.

LOIUK ziurtasunez daki ahalik eta azkarrena motaren bateko lanak hasteko interesa duela tokiko gobernuak. Hori horrela egiten bada, **zati txiki bati ekiteko izango da, ez proiektu osoa egiteko.**

“Ezer egingo ahal da eta lanpostuak sortzeko balioko ahal du!!!” esaten dugu benetan, azken batean hori baita helburua. Dena den, errealistak izan behar dugu, eta esku artean ditugun datuak ez dira onak.

AUTOPISTA (AP-68)

Bilboranzko norabidean lotura egitea lehen aipatutako industrialdearen garapen onaren mende dago.

Gogorarazi behar dugu loturarekin lotutako ekimenak aurkeztu dizkiela **LOIUK** Udalarari, Parlamentuari eta Kongresuari.

Behin eta berriz eskatzeak ekarri zuen Estatuko aurrekontu nagusietan **100.000 euro** onartzea proiektu hori egiteko. **NaBaiko Uxue Barkos** hautagaiak aurkeztu zuen **zuzenketa** bati esker lortu genuen, eta lan horiek egiteko lortu zen le-



Orain AP68 autopistan sartzeko dagoen sarrera BAKARRA iragartzen duen kartela

henbiziko diru kopurua izan zen.

Aurtengo urriaren 26an, **Parlamentuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordeak 3 milioi euro onartu zituen** Nafarroako Errepideen III. Plan Zuzentzailean. Plan horren jardun esparruak 2018. urtea arte hartuko du. Ez dugu ahortzi behar **lan horiek egiteko 5 milioi euro beharko ditugula.**

LOS CABEZOS INDUSTRIALDEA

Ekainaren 14an Konpentsazio Batzordea deuseztatu zen. Horrenbestez, formalki amaituta gelditu dira izapideak.

Industrialdean sartzeko beste bide bat egin behar izateak sustatzaileei ekarri zien gailak diruz laguntzea zen arren Industria Batzordearen hasierako asmoa –izan ere, **horretarako 45.000 euroko diru saila onartu zen–**, esan behar dugu azkenean ez zela **aurrera atera**, erabaki teknikoengatik.

‘LODOSAKO PIKILLOA’ GORAIPTZKEKO I. EGUNA

2010eko otsailaren 19an Industria Batzordeak egin zuen bilera batean planteatu zuen **LOIUK** egun hau egitea. Bai UPNko ordezkaria (José Munilla), eta bai PSNkoa ere (Antonio Remírez), ideia horren alde egon ziren eta laguntzeko asmo **“oso”** agertu zuten.

Ordurako, gure ordezkariak eginak zituen bilerak **Lodosako Pikillo** **Piperraren Kontseilu Erregulatzailearekin**. Kontseilu horrek ere laguntzeko asmoa azaldu zuen, eta, besteak beste, **diru laguntza ekonomiko handia eman zuen.**

Urteak aurrera egin ahala, inplikatura zeudenekin bilerak egin genituen: tabernak, jatetxeak, enpresak, elkarteak, merkataria eta abar.

Urriaren 2an egin genituen ekitaldiek amaitu zuten dena, eta, gure ustez, **emaitza oso ona izan zen.**

Argitalpen hau baliatu nahi du **LOIUK** laguntzaile eta parte-hartzaile guztiei gure **eskerrik zintzoena** adierazteko.

Era berean, zuzena da tokiko garapenerako bulegoak egindako lanari balioa ematea.

Egun horren etorkizunaren aldeko apustua egin nahi du LOIUK, eta, gure Udalean agintean dagoen alderdi politikoa gorabehera, modu aktiboan parte hartuko dugu guk.



Goraiptzeko eguna abiarazi zuen solasaldiaren irudia

Argazkia: UTZITAKOA

Parte-hartzean gutxi oinarritutako aurrekontuak

2010eko aurrekontuak maiatzeko osoko bilkuran onartu ziren, ekitaldiak bost hilabete egin zituenean. Berandu onartu zirela badi-rudi ere –eta hala da–, aurten ez ditugu izan

joan den urteko zortzi hilabeteko atzerape-nak. Aurtengo aurrekontua 4.776.009,91 eurokoa izan da.

LOIUK hainbat al-ditan adierazi izan du aurrekontuen dokumentua, zalantzarik gabe, udal ordezkariok landu behar dugun kontu garrantzitsuenetako bat dela. **LOIUREN** ustez, ez da urtero egin behar den

izapide hutsa, baizik eta herritarrekin hartzen ditugun konpromisoak eta konpromiso horiei aurre egiteko baliabideak modu objektiboan biltzen dituen dokumentua da, eta, hortaz, seriotasunez ekin behar zaio. Dirua

zertan gastatu behar dugun eta nondik lortu behar dugun erakusten du.

LOIU beti egongo da aurrekontuen aldeko botoa emateko. Baina, era berean, gure proposamenak kontuan izateko aldeko

jarrera izatea ere espero dugu, eta hori ez da gertatu azken hiru urteetan. Izan ere, ez dira saiatzen ezta elkartzeko gune batera iristen ere. Besterik gabe, ez dute behar.

LOIUREN HASIERAKO PROPOSAMENAK

■ **Ribera Pro-Saluden aldeko diru laguntza** sartzea.

■ **“Protokoloa eta beste ordezkari batzuk”** diru saila murriztea, gutxienez, aurrekontuan jasotako herena. Hau da, 19.000 eurotik 13.000 eurora igarotzea.

■ **“Igerilekuen kudeaketa”** diru saila murriztea, 2010. urtea amaitzeko falta diren hila-beteekiko proportzionala den moduan. Oraingoan, murrizte hori heren batekoa izango litzateke, aurrekontuan hartutako 100.000 euroak kudeaketako urte baterako baitziren.

■ **“Erretirodunen klub”** berri-ari erreferentzia egiten dioten diru sailak direla-eta, diru sar-reren diru sail berria hartzea aintzat, lokala errentan hartu duenak egin beharko dituen ordainketen diru sarrerak azaltzeko, hain zuzen, kontzeptu hauek ordaintzeko egingo dituenak: energia elektrikoa, ura, berokuntza, zaborrak...

■ **“Oztopo arkitektonikoak ezabatzea”** diru saila %100 handitzea, hau da, 6.000 eurotik 12.000 eurora igarotzea. **Helburua:** egon daitezkeen oztopo guztiak ezabatzea, eraikin

publikoetan...

■ **“Garbigailua erostea”** diru saila bertan behera uztea, 160.000 eurokoa. Uste dugu **gastu hori egitea ez dela beharrezkoa** eta, gainera, ohiko gastuak ekarriko dituela berarekin gero. Horrez gain, une honetan oraindik ez dago konponduta tokiko finantzaketaren arazoa.

■ **Egun edo jardunaldi “turistiko-komertzial”** bat (edo **pikillo piperraren eguna**) antolatzea finantzatzeko diru saila sartzea aurrekontuan (horretan ari da lanean **Industria, Merkataritza eta turismo Batzordea**).

LOIUREN JARRERA

LOIUK zuzenean jakinarazi zion alkateari aurtengo aurrekontuen aldeko botoa emateko asmoa genuela.

Jakitun ginen **gure laguntza ez zela beharrezkoa** aurrekontuak aurrera ateratzeko, baina uste genuen **documentua egitean parte hartzeko eta gure iritzia emateko eskubidea** genuela. Horregatik, alkateari helarazi genizkion **proposamen batzuk, aintzat hartzeko**, gure laguntza izan nahi bazuten (**gorago daudenak**).

Maiatzeko osoko bilkura hartan bozkatu zuten dokumentuak **ez zuen gure ekarpenetako bakarra ere hartzen**.

LOIUK ondorioztatu zuen, **horrenbestez, aurrekontuen txostena jaso genuenetik (2010eko mar-**

txoaren 23an) behin betiko aurrekontuak genituela esku artean, eta ez, guk hala nahi izango bagenuen ere, **zirriborro bat**.

“Ezin genuen aldeko botoa eman, parte hartzen utzi ez ziguten aurrekontu batzuetan”

PABLO AZCONA,
LOIUKo zinegotzia

ESKATU DIREN BESTE PROPOSAMEN BATZUK

■ San Agustin kalean kamioiak uzteko dagoen aparkalekuan bideoazintzako sistema jartzea.

■ Ferial eta Medianil pasealekuetan argizatze koherentea eta iraunkorra jartzeko proiektua egitea.

■ Liburutegian wi-fi gunea jartzea.

■ Montserrat eraikina berritzeko proiektuari lehentasuna ematea, eraikinen inguruan dauden lur sailak herritarrentzako espazio bihurtzeko aukera kontuan hartuta.

■ Pasabideak arautzen dituen ordenantza bat izateko lan egitea. (Proposamen hau gauzatu da).

Erretirodunen etxea: beste kudeaketa txar bat

Denok dakigun moduan, kultur etxe zaharreko beheko solairua berregituratu egin zen erretirodunen etxe berria jartzeko. Lan horiek 2009an egin ziren, eta Estatuko E Planaren bidez finantzatu.

Hasieratik egin ziren gaizki gauzak. Izan ere, zuzenean esleitu zitzaion zerbitzua interesdun bati, hark lokalaren gastu arruntak ordaintzearen truke (ura, argia, elektrizitatea...). Eta hori, gainera, gainerako udal taldeek jakin gabe eta esleipen publikoa egiteko prozesurik gabe egin zuten. Ondoren eman zituzten azalpenen arabera, beste inork ez zuen baldintza horiek onartzeko interesik eta erretirodunen klubekoak **"presa handia ematen ari ziren"** lokala irekitzeko.

Hilabete gutxiren buruan, ordea, erretirodunen klubeko zuzendaritzaren eta taberna errentan hartuta zuenaren arteko arazoak hasi ziren. Zuzendaritzako kideen ustez, ez ziren ari zerbitzu hori behar bezala ematen, eta oso kezagarriak izatera iritsi ziren tirabirak eragin zituen egoera horrek.

Aurreneko unean, UPN saiatu zen giroa lasaitzen, eta, horretarako, zenbait bilera egin zituen bi aldeekin. **Gainerako alderdion, ordea, ez zigun "ezertxo ere" esan.** Nolanahi ere, arazoak larriagotzen joan ziren, eta aurtengo apirilean egin genuen gai hau lantzeko lehenbiziko bilera. Arazoa konpontzeko batzorde bat eratu zen, baina ezinezkoa zen, zerbitzu horren funtzionamendua arautzeko **baldintzen**

plegurik ez baitzegoen, eta den-denaren oinarria "hitzezko akordioak" baitziren, demostratzen oso zailak ziren akordioak. **Beraz, agerian gelditu zen gauzak gaizki eginda zeudela.**



Erretirodunen klub berrirako sarbidea

Argazkia: LOIU

Ondorioz, udal talde guztiek erabaki zuten lehiaketa publikoaren bidez eskaintzea taberna eta esleitzeko prozesu **"formala"** egitea, lehenbiziko egunetik bertatik hala egin behar bazen ere.

Hori guztia egin bitartean, batzorde berri horretako kideek **"oso arazo larrirei"** egin behar izan zieten aurre; eta **UPNk**, batzor-

214.260,28 €-koa izan zen kalkulaturako aurrekontua. 2009ko irailean lokala inauguratu zen, eta taberna zerbitzua du. Hain zuzen, zerbitzu horixe da gertatu diren arazoaren arrazoia.

dea aitzakiatzat erabilita, nahi izan zuen denon artean konpontzea berak sortu zuen arazo bat.

Egun tabernan aritzen den pertsonari esleitu zitzaion zerbitzua ekai-

la. **Bilera horretan parte hartu genuen guztiok esan genuen kontratu bat zegoela eta bete egin behar genuela.**

Geroago, ordea, eta batzordeari ezer esan gabe, gainera, UPNk kontratua aldatzea erabaki zuen, eta, hartara, errentan hartuta zuenak 600 euroko hileko kuota ordaintzea, **"alokairu gisa"**, lokalaren gastuak ordaindu beharrean.

LOIUK horren guztia-
ren gainean duen iritzia hau da: **"Ez dago ados mamiarekin, funtsean aldatzen baitu baldintzen plegua. Batzordeko kideei lan handia ekarri zigun baldintzen plegu hori hitzartzeak".**

"Baina, batez ere, ez dago ados moduekin. Izan ere, beste behin batzorde baten erabakiak eta iritzia alde batera utzi dituzte —eta, gainera, helburu horretarako eratu zuten batzordea—. Eta gogoan izan behar dugu inork hartu nahi ez zituen erabakiak hartu behar izan zituela batzorde horrek".

Dirua kostatzen ari zaio Udalari, eta **oraindik ez dakigu zenbat**, nahiz eta, UPNren arabera, ez zitzaion kostatu behar **"ezta zentimorik ere"**.

Eta ikusteko dago nola bukatuko den... Gainera, den-denaren jatorrian, gure iritziz, **UPNren kudeaketa txarra dago.**

Lodosari pultsua hartzen diogu

hirigintza

Aurreikusitadagoenaren arabera, laster hasiko dira **Espainiako plazako zoladura berritzeko lanak (pasealekua)**. Lan horiek egiteko aurrekontu osoa **313.600 eurokoa** da, eta, proiektua egiteko eta lanak zuzentzeko gastuak gehitzen bazaizkio, **azken kopurua 337.931 eurokoa da**. Hasiera batean, Nafarroako Gobernuak **229.784,81 euro** emango ditu, **“Tokiko inbertsioen plana, 2009-2012”** izenekoaren kargura.

Pasealeku hori **1998an** birmoldatu zuten guztiz, eta, horrenbestez, lan horiek **“nahiko” berriak** dira. Erabili ziren materialak egokienak izan ziren edo ez gora-behera, **LOIUK** uste du plazaren erditik **“trailer kamioiak”** sartzeak **ez duela batere lagundu zorua ongi zaintzen**.

Nafarroa etorbideko espaloietan lauzak jartzeko lanak ere egin behar dira, alde batetik, pasealekutik **Tejeria kaleko** bidegurutzeraino

doan tartean, eta bestetik, **Olivar kalean**.

Lan horiek egiteko hasierako aurrekontua **263.594 eurokoa** da, eta **284.503** euroraino iristen da kopuru hori, proiektua idazteko eta lanak zuzentzeko gastuak aintzat hartzen badira. **Gobernuak 195.900 euro** emango ditu lan horiek egiteko.

LOIUn iritziz, lan horiek badira beharrezkoak, espaloiak egoera **“negargarrian”** baitaude eta, horietan lauzak ongi jarrita, **jende asko atzera eta aurrera ibiltzea lagunduko baita**. Hirigintzaren arloa beti izango da gauzak egin gabe geldituko den horietako bat, errepideak ongi izateko **mantentze lanak etengabe** egin behar baitira. Dena den, **LOIUK** uste du hirigintzaren arloko jarduketak egiteko erabiltzen den **irizpidea ez dela beti onena**.

Ez zaie lehentasuna ematen premia presazkoenei. Izan ere, ikus

dezakegu **gune batzuk ez dituztela “konpontzen”**, inguru horietako bizilagunei oztopo eta traba handiak eragiten dizkieten arren. Beste gune batzuk, berriz, **“konpondu” egiten dira, nahiz eta ez diren hain premiazkoak**. **Antza denez, lehen eta bigarren mailako herri-tarrak daude**.

LOIUn iritziz, Udalak ahalegin handiagoa egin beharko luke oztopo arkitektonikoak ezabatzeke eta iristeko erraztasuna hobetzeko, **bai errepide publikoetan, bai eta eraikin publikoetan ere**.

Gogoan izan behar dugu iristeko erraztasuna hobetuta, gaitasungabeei ez ezik, zaharrei, seme-alaba txikiak koxteetan ibiltzen dituzten gurasoei, erosketak eramateko gurditxoak daramatenei edo, aldi baterako besterik ez bada, aulki gorpilduna edo makuluak erabili behar dituztenei ere onura ekartzen diela.

pasabideak

Beste alde batetik, **LOIUK errealitate bihurtzea nahiko lukeen beste proiektu bat Montserrat eraikina zaharberritzeko eta inguruak herritarrentzako plaza moduan egokitzeke** da. Izan ere, gure ustez oso toki egokia da horretarako, eta, gainera, **zuzena da gune publiko bat sortzea halako bakar bat ere ez dagoen leku batean**.

“Beste gauza batzuetarako” jartzen den gogo bizia jarriko baltiz, seguru asko, lortuko litzateke. Arazorik ez izateko, denon **pazientzia** eskatuko duen gaia den arren, **LOIUK** uste du **pasabideen ordenantza aplikatzea beharrezkoa zela** eta hori eskatu genion zuzenean alkateari.

Izan ere, gai honen gainean genuen uste osoa gogoan hartuta, **ordenantza egiteko proposamena** aurkeztu genuen, eta gerora onartua izan da. Mendabiako Udalari eskatu zion ordenantza **LOIUK**. Pasabideak aplikatzeak garajeetan sartzeko eta horietatik ateratzeko eskubideak gordetzen lagundu beharko du, eta bai gure herriko aparkalekuak antolatzen ere. Hasiera batean, lizentzien titularrek **60 euro ordaindu beharko dituzte urtean metro lineal bakoitzeko**.



osasun etxea

Dirudienez, Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuak **“ahantzi egin ditu”** Lodosako osasun etxean egin nahi zituen **handitze lanak**; ez, ordea, ondoko herrietan egin behar zituenak.

Aurreko albistegian adierazi genuen moduan, **LOI Uren** ustez, ez da presazkoa handitze lan horiek egitea. Gure ustez, **beharrezkoa** goa da oraingo osasun etxea ongi hornitzea: dagozkion zerbitzuak jarri eta zerbitzu bakoitzerako langile espezialistak hartu.

Oso nabarmena da, **pediatria eta ginekologia** zerbitzuak direla-eta, erabiltzaileak ez daukela batere gustura.

Kexa ugari aurkeztu izan dute.

Pediatria zerbitzuaz familia mediku bat ari da arduratzen, eta **ez espezialista bat**, nahiz eta Osasun Departamentuak esan zien kalte egindako gurasoei konponbidea

lortuko zutela 2009ko azarorako. Hartara, urtebete geroago, egoera bere horretan dago. **Ginekologia** zerbitzua, berriz, astean behin besterik ez da eskaintzen, eta hori **oso gutxi da eskaera guztiei erantzuteko**.

Gogoan izan behar dugu kalitateko osasun arreta publikoa izateko **eskubi-**

dea dugula, horretarako ordaintzen baitugu. Baina orain batzuek osasun sistema pribaturara jo behar izaten dute, dagokien espezialistak arreta emateko.

Espezialista pribatuak beste aukera bat izan beharko lukete, ez zerbitzu horiek behar dituzten pertsonen aukera bakarra.



2009an gertatu zen moduan, **2010. urte honetan ere** izan da tokiko administrazioen inbertsioak egiteko **“plan bat”**.

Plan berri horren izena **“Enplegurako eta tokiko iraunkortasunerako Estatuko funtsa”** izan zen, eta Lodosarako **527.348 euro** eman zituen. Oraingoan, ordea, eta ohiko gastuei aurre egiteko udal askok eta askok dituzten arazoak konpontzen saiatzeko,

Estatuak emandako diruaren **%20 ohikogastuetarako** erabili behar zen, baldin eta helburu soziala bazuen. Horrenbestez, **105.681 euro** erabili behar ziren horretarako, eta horietatik **57.681 kultur etxeko eta liburutegirako gastuetara bideratu** ziren, eta **48.000, eskola publikora**.

Gainerako **%80a 421.667 euro, hainbat proiektutara** bideratu zituzten:

E Planaren jarraipena

■ **oztopo arkitektonikoak ezabatzea:** 13.457,19 euro (*igogailua, erabilera anitzeko aretara joateko*).

■ **11/2007 Legea betetzeko konponbideak:** 16.984,40 euro (*Legearen eskakizunetara egokitzeko udal txeko ekipo informatikoetan jarduketak egitea, herritarrei*

errazteko sarbide elektronikoa zerbitzu publikoetara).

■ **gimnasioko modulu multzoa handitzea:** 281.495,10 euro (*igerilekuen instalazioetan beste areto bat egitea, gimnasioa handitzeko*).

■ **lanak egitea igerilekuetan:** 22.900,53 euro (*mantentze lanak egitea udako igerilekuetan*).

■ **padeleko zelaiak estaltzea:** 86.829,78 euro (*urtebete lehenago egindako padel zelaiak estaltzea*).



Zaharren egoitza: etorkizun hipotekatua

Zaharren egoitzarena oso gai delikatua da, eta LOIUk, une oro, ahalik eta zorroztasun eta leuntasun handienarekin lantzen du.

Hartara, premisa honetatik abiatzen gara: LOIU ez dago batere ados laguntzako zerbitzuak –eta hau horietako bat da– sistematiko-ki enpresa pribatuen esku uztearekin.

Eta ez gaude batere ados arrazoi soil honengatik: arlo pribatuko enpresa baten azken helburua, logikoki, errentagarritasuna lortzea da, eta honelako gai batean argi dago **beste interes batzuen alde egin behar dugula**.

Azken batean, **publikoa kudeatzearekin lotuta dagoenean, LOIUk eta UPNk ez ditugu irizpide berberak**. Gure ustez, kudeaketa zuzena egin behar da. Haiek, ordea, zeharkako kudeaketaren aldeko apustua egin dute

ematea, **eskatu zen gutxieneko lizitazio aurrekontua urtean 26.000 eurokoa izanzen**. Orduan, egungo enpresak goraka “eskaini” zuen eta urtean **35.555,87 euro ordaintzeko** eta hurrengo urteetan KPlaren kopuruak gehitzeko konpromisoa hartu zuen. **Egun 7.000 euro ordaintzen ditu urtean, eta 2005eko otsailetik 2009a arte ez zuen ezer ordaindu, errenta gisa**. Hortaz, Patronatuarekin duen zorra **146.434,81 eurokoa da**.


146.434,81 euroko zor

dunaren gain eta galorde emango da zerbitzua, eta horrek ez du inolako eskubiderik izango kalte-ordainik jasotzeko”, “Lodosako zaharren egoitzaren instalazioak eta ondasunak egun dauden moduan hartuko ditu”, “era berean, esleipenduna arduratuko da altzariz berriz hornitzeaz eta zerbitzua eman ahal izateko beharrezkoak diren zaharberritze lanak egiteaz”.

Jatorrizko kontratu hori bi aldiz aldatu da dagoeneko, eta, aldaketa horien

dela. Hortaz, zer gertatuko da gero dauden udal ordezkariak ez badaude ados egungoen asmo pribatizatzaile horrekin? **“Bada, hor konpon herentziarekin”.**

Laguntza emateko zerbitzuaren esparruan, esan behar da 2010eko otsailean hitzarmen bat sinatu zela eta, horren bidez, egoitzarako 28 toki hitzartu edo itundu lortu zituztela. Hartara, **Nafarroako Gobernuak finantzatzeko lituzke 28 toki horiek, eta, beraz, berak erabaki beharko**



(**pribatizazioa**). Haiek esaten duten moduan: “Horrela ez zaigu kostatzen ezta euro bakar bat ere”.

Patronatuaren barnean eman dituzten pauso batzuen aurkako jarrera izan du **LOIUk**, nagusiki azken lau urteotan egin dituzten **kontratu aldaketekin** lotutakoari dagokionez.

2004an, lehiaketa publikoaren bidez eskaini zutenean zerbitzu hau

hori, ordea, “barkatu egin zioten” enpresari, 2009ko maiatzaren 20an, UPNren esanetan, egindako inbertsioak eta aurreko ekitaldietan izandako galerak “berdintzeko”.

LOIUk gogorarazi nahi du Patronatuaren presarekin izenpetu zuen **baldintzen pleguan** –Patronatuaren buru UPN dela gogoan izan behar da– **“oso argi” jartzen dituela haiek, besteak beste: “esleipen-**

bidez, enpresak hartu zituen konpromisoak modu garrantzitsuan aldatu dira. Konpromiso horiei esker lortu zuen, gainera, kontratua izenpetzea, interesa zuten beste enpresa batzuk bai baitzeuden.

LOIUk uste du garrantzizkoa dela nabarmentzea **jatorrizko kontratuan 10 urte ezartzen zirela errentarako, baina, bi aldaketa horien ondorioz, 2034. urtea arte luzatuko**

luke nork lor ditzakeen toki horiek. Horrek esan nahi du, aurretiazko balorazioa egin ondotik, alde batetik, toki horiek hartuko lituzketen pertsonen **diru laguntzak** izango lituzketela eta, beste alde batetik, enpresak **1.941 euro jasoko lituzkeela hilean** plaza horietako bakoitzarengatik, itunduak ez diren plaza truke lortzen dutena baino **400 euro gehiago**, gutxi gorabehera.

Neurri horiek guztiek errentagarritasun handiagoa ematen diote enpresari. Zuzendaritzako kideek adierazi ziguten moduan **Lodosako egoitza errentagarria da**. Paradoxikoki, ordea, ez dakigu zenbateraino den errentagarria, nahiz eta behartuta dagoen, enpresak **ez baitzikigu aurkeztu kontuak**, eta hori Patronatuak behin eta berriz eskatu dizkiola. Bueno, hori guztia gorabehera, Patronatuak behin eta berriz jaso-

tzen ditu zerbitzuaren behar ez bezalako funtzionamenduari buruzko kexak. Zenbait hornidura oinarritzko falta izan direlako kexak asko izan dira, eta ziur dakigu ez direla **"unean unekoak"** izan eta zenbait kasutan, gainera, esplikaziorik gabekoak izan direla. Enpresak, nola ez, dena ukatzen du eta **"bere burua zuritzen du"** biltegiak erakutsita, ezer ez dela falta ikus dezagun. Hala ere, **bada-kigu, Patronatuko beste kide batzuek bezala, hori**

gertatu dela.

Langileekin ere izan dira arazo larriak. Enpresaren **"likidezia ezaren ondorioz"**, gure egoitzako langileek ez dute kobratu udako aparteko paga zegokienean, eta orain ari dira kobratzen, lau epetan, iraila eta abendua artean.


Gertatzen ari direnean jakiten ditugu gauza horiek guztiak. Izan ere, gure egoitzaren kudeaketan **"gardentasuna"** ez da

batere ohikoa, ez gutxienez Patronatuko kide batzuekin, denok dakigun bezala.

Gogoeta hau hasi dugun moduan amaitu nahi du **LOIUK: Udal Patronatuak egoitzaren kudeaketa izatea berreskuratzeko apustua egin nahi dugu**, gardentasuna nagusi izateko, bai kudeaketan, bai kontuetan.

"Gure zaharrak EZ dira negozioa"

Egoitzaren kopuru handiak [1984an]



INFO GEHIAGO

■ Ondoren dauden datuak **CANAL** aldizkari-teratukoak dira, Lodosan argitaratzen dira. Hain zuzen, 1984ko maiatzaren lehen kaleratutako alekoak dira.

■ Beherago aipatzen diren gastuei **20 milioi gehitu behar zaizkie**, altzariz janzteko kontzeptuagatik.

■ Datu ekonomiko hauek guztiak **pezetatan** daude.

1 - GASTUEN AURREIKUSPENA

■ Lur Saila.....	18.000.000
■ Proiektuaren ordainsaria (arkitektoa)	4.355.452
■ Eraikitze aurrekontua.....	118.527.440
■ Lanak zuzen./arkitekto-laguntzailearen ord.	4.634.473
■ Hobekuntzak eta beste batzuk	838.087

GUZTIRA146.355.452

2.1 - DIRU SARRERA ESTIMATUAK

■ Julia GASTÓN andrearen lur sailak saltzeagatik (Banco de Vasconian)	11.968.000
■ Udalaren ekarpena 1983ko aurrekontuetan (lur sailak erostea)	18.000.000
■ Nafarroako Foru Diputazioaren ekarpena (22/1983 Foru	

Legea, apirilaren 11koa)4.355.452

■ Nafarroako Foru Diputazioak eman beharrekoa (11/1983 Foru Legea, apirilaren 11koan) 10.644.548

■ Nafarroako Foru Diputazioak eman beharrekoa, 1984an (egiaztagiriaren truke)..... 25.000.000

2.2 - BESTE EKARPEN BATZUK:

■ FONASek, 1985ean.....	34.000.000
■ Ídem, 1986an	28.000.000
■ Nafarroako Foru Diputazioak, 1985ean	6.000.000
■ Herritarren ekarpena, 1984ko maiatzaren 2an.....	867.133
■ Udalaren edo herritarren beste ekarpen batzuk ...	7.519.719

GUZTIRA146.355.452

Igerilekuen “hondorik gabeko zuloa”

Lodosako udal igerilekuek etapa berri bat hasi behar dute, eta, guztion onerako, espero dugu etapa “emankorragoa” izatea, alde guztietatik.

2004ko ekaina eta 2010eko urria artean, instalazioak aldi baterako enpresa-elkarte baten esku egon dira (UTE), eta elkarte horrek eman du zerbitzua.

LOIUK uste du etapa horrek ez duela bate-re alde onik izan, batez ere azken bi urteetan, igerilekuak pribatizatuta egon diren arren, Udalak diru kopuru handiak eman behar izan baitizkio.

2004a eta 2008a artean, kontratua indarrean egon den bitartean, ikusi dugu enpresak onartu zuen baldintzen plegua “*gutxietsi*” eta “*mesprextatu*” egin dutela etengabe, nagusiki Udalak onartu zituen fakturei dagokienez. Onartu zituen, baina ez zegokion ordaintzea. Horri gehitu behar diogu enpresak urtero Udalari errenta gisa ordaindu behar zion kopurua soil-soilik 2004an eta 2005ean ordaindu izana. **Horrenbestez, 2008a bitartean Udalarekin zuen zorra 38.054,14 eurokoa zen.**

Dena dela, okerrera geroago etorri zen. 2008ko udan enpresak jakinarazi zuen ez zuela zerbitzua ematen jarraitu nahi kontratua amaitzen zenean, urte horretako abenduaren 31n. Ordutik genekien zegoen irtenbide bakarra **eskaintza publikoa egiteko prozesu bat egitea zela**. Hala eta guztiz ere, 2010eko uda arte ez da egin prozesu hori.

Eta, beraz, zer gertatu zen 2009 osoan eta 2010 gehienez? Bada, enpresa berberak jarraitu duela zerbitzua ematen baina “kostuak” denon artean



Lodosako udal igerilekuetarako sarbidearen irudia

Argazkia: LOIU

ordaindu ditugula.

Aurreko albistegian ohar-tarazi genuen horretaz. Azaldu genuen, gure aurreikuspenen arabera, zenbat kostatuko zen hau guztia 2009an, eta esan genuen gastuak 130.000 euro ingurukoak izango zirela. **Eta, zehazki, 125.080,30 eurokoak izan ziren.**

“**Utzikeriak**” eta arazoa garaiz ez konpontzeak berriro ere 2010ean gastuak denon artean ordaindu behar izatea ekarri digute; hain zuzen ere, **81.114,62 euro** abuztua bitartean. Eta horri gehitu behar dizkiogu enpresak oraindik eskatu ez dizkigun faktura batzuen-gatiko beste **20.000 euro inguru**, baina ziur gaude eskatuko dizkigula.

Laburbilduz, zerbitzua berriro esleitzea erabakitzeke **gure Udalak behar izan duen denborak**

226.194,92 euro gastatzea ekarri digu, eta horietatik **97.095,86 euro jada ordaindu ditugu**. Hortaz, zain egotea “*garestia*” izan dela esan dezakegu, “*gehienez ere*” sei hilabete egon behar omen genuen zain, baina azkenean urte eta erdi egon baikara. Datuak ematen jarraitzeko, esan behar da “*gainera*” enpresak ez zuela urteko saria edo kanona ordaintzen, eta, hortaz, gure Udalari zor diona **61.424,95 euro** dela.

LOIU ados dago instalazioetan egin diren hobekuntzekin, padeleko zelaietan, balio anitzeko aretoetan, ekipamendu berrietan (den-denak Estatuko funtsen bidez ordaindutakoak), **erakargarriak izan daitezen eta zerbitzu ona ematen saiatu behar baitugu**. Baina uste dugu **ezin dugula utzi Udalak gauzak modu horretan kudea**

ditzan. Kudeaketa txar batek berekin dakar kostu handiagoa ordaindu behar izatea eta, ondorioz, zerbitzu kaskarra goak izatea. Eta horixe gertatu da kasu honetan.

2010eko urriaz geroztik beste enpresa bat ari da arduratzen instalazioez. **LOIUK** parte hartu zuen esleitzeko prozesuan, eta espero du **kontratueta sinatutako guztia betetzea**. Oraingoan, enpresa berriak aurkitu dituen instalazioak “*oso kaskarrak*” dira eta “*gainbehera doaz*”, aurreko etapan **mantentze lan askorik ez baitute egin**.

LOIUK nahi du, denon onerako, enpresa berri honek “*asmatzea*” zerbitzu publiko hau ematea kudeatzean.

Ezin dugu onartu hondorik gabeko zulo gehiagorik

Ez dugu konplexurik, ez eta loturarik ere

Lodosaren alde LOIUK egiten duen lana, beste arlo batzuen artean, Udalaren osoko bilkuretan egiten duenari lotzen zaio, alkateari egiten dizkion mozioen eta interpelazioen bitartez. Hona hemen laburbilduta zati bat.

TOKIKO FINANTZAKETA

BEZ zerga berehala goratu behar dutela-eta.

Parlamentuari eta Nafarroako Gobernuari eskatu zaie zerga goratze horrekin lortutako diru sarreraren %40 bideratzeko **toki erakundeen ohiko transferentziak handitzera**, gero horiek erabili beharko baitute, diru sarrerak gutxitzea eta **zerbitzu publikoei eustea bermatzea berdintzeko**.

EMAITZA: onartua, aho batez.

PEDIATRA

Lodosan pediatria zerbitzua emateak gorabeherak ditu. Hori dela-eta, hitzartu da **Lodosako Udalak Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuari** eskatzeko **pediatria arretako egungo eredua berma dezala, osasun etxe bakoitzean pediatria tituludunak jarrita** eta, bajen, oporren eta gainerako atsedendaldien kasuan, pediatriaren ordezkapenak bermatuta.

EMAITZA: onartua, aho batez.

HONDAKINEN PLANA

Nafarroako Gobernuak aurkeztu du **Nafarroako Hondakinen Plan Integratua, 2010/2017**. Lodosari eragiten dionez, LOIUK hau eskatu du:

■ **Planari buruz Nafarroako Gobernuak ematen ari den informazioa eta azalpenak jakinaraz daitezela.**

■ **Eta dagokion batzordean eztabaida daitezela.**

EMAITZA: onartua, aho batez.



Aurrekontuen eztabaida egin zen osoko bilkuraren irudia. Lehenbiziko planoan, eskuinean, Pablo Azcona Argazkia: UTZITAKOA

TXAKURRENTZAKO GUNEAK

Udalak animaliei buruzko ordenantza abian jarri ondoren, LOIUK uste du beharrezkoa dela:

■ **Parke publikoetan txakurrentzako guneak egokitzea.** Horien **kokagunea** eta **funtzionatzeko modua** hitzartu egin beharko da.

■ Gune horiek **segurtasun baldintza** eta **baldintza higieniko-sanitario** ezin hobeetan edukitzea.

EMAITZA: onartua, aho batez.

PIPERRA ETA ZAINZURIA

Lodosa sartuta dagoen **sormarkak**, LOIUREN ustez, hondatuta daude.

Eskatzen dugu **4 hilabete epean** aurkez dadila Nafarroako Parlamentuan Lodosako Piperraren sormarka eta Nafarroako zainzuriarena **sustatzeko, bultzatzeko eta berreskuratzeko neurriak dituen programa bat**.

EMAITZA: onartua, aho batez.

TXINGOR-ERAUNTSIA [2009]

Aurtengo otsailean, eta **NaBaik** lagunduta, LOIUK **Lodosako Udalaren osoko bilkura batean** aurkeztutako mozio bat iritsi zen **Foru Parlamentura**. 2009an aurkeztu zuen, hain zuzen, **“Natura hondamendiek kalte egindakoei laguntza emateko legeak”** atzerako eragina izan dezan, urte bereko maiatzaren 24an izan zen txingor-erauntsiaren ondorioak ordaintzeko.

EMAITZA: onartua, aho batez, Foru Parlamentuan.



argazkia: LOIU



Ancha 1, Lodosa
31580, NAFarroa

euskaraz

<http://loiu-lodosa.org/boletin/eus>

info gehiago

<http://loiu-lodosa.org/boletin>

harremanetarako

info@loiu-lodosa.org

argitaratzailea:



laguntzailea:



Nafarroa Bai